


Astekaria

BARREN

elgoi



**Azken 40
urtetako ufalak**

AZKUE

GARATE

JANTZI - DENDA

*Larunbat arratsaldetan
zabalik*



3 LAU HANKATAN

"Alemaniaren helburu nagusi eta aurrenetako bat Errusia menderatzea zen" **Joxin Arregi**

6 ERREPORTAIA: 1953KO UHOLDEAK: 40 URTE BERANDUAGO

1953. urteko urriaren 15ean Deba ibaiak gora egin eta herriko kaleak urez estalita geratu ziren.

8 ARRAZOIAK ERDIBANA: BEJETARIANO EGINGO AL ZINATEKE?

Jesus Mugerza: "Bejetarinoa bai!: ahal dut, nahi dut eta izan behar dut!"

Amagoia Arakistain: "Elikadura ekilibratua izateak, denetik jatea suposatzen du."

12 BERBETAN: Alberto Etxabe

"EZ DUGU INONGO SUKALDARITZAREN INBIDIXARIK EUKI BEHAR".

14 KIROLA:

GAIA: 500 IKASLE ARITUKO DIRA ESKOLARTEKO JOKUETAN
ELKARRIZKETA: **Maidor Elustondo**

16 ELKARTEETATIK BUELTAN

UDAL MUSIKA ETA DANTZA FUNDAZIOA

17 KULTURA

MIKEL LEGORBURU BOSGARREN ZALDIBIKO TXAPELKETAN

TXANDAK

FARMAZIAK:

16, larunbata: **ORMAZABAL**

17, igandea: **ORMAZABAL**

18, astelehena: **ETXE BERRIA**

19, asteartea: **ETXE BERRIA**

20, asteazkena: **ETXE BERRIA**

21, osteguna: **ETXE BERRIA**

22, ostirala: **ETXE BERRIA**

OKINDEGIAK:

17, igandea: **BOUTIQUE DEL PAN**



PREMAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak	741155
Txanda hartzeko	743354
Alkoholiko Anonimoak	740385
D.Y.A (anbulantzia)	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroko Ospitala	756264
Drogomenpekotasun Zerbitzua (Anbulatorioa)	7410 08
Odol Emaileen elkarte	741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar)	112131
Taxi Geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua	742158
Mendaroko Udala	756100
Ongizate zerbitzua	743736
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Caritas	740142
IMI	741196
Kontsumo Bulegoa (OMIC)	743088
Liburutegia	743525
Musika Eskola	742145
Polikiroldegia	741361
Postetxea	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza	740296
Zaharren Biltokia	740526

IKASTETXEAK

Herri eskola	74 08 79
I.M.H.	74 41 32
Institutua	74 02 67
Ikastola	74 27 00
L.H.I.	74 31 00
Pilar Ikastetxea	74 13 31

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

LAU HANKATAN



Joxin Arregi

Zergatik III

Argitaratzailea
Elgoibarko Izarra
Laguntzailea
Elgoibarko Udala
Zuzendaria
Alberto Agirreazaldegi
Hizkuntza Arduraduna
Anjel Ugarteburu
Erredakzio kontseilua
Iñaki Arrieta, Antton Bergara,
Edurne Bilbao, Rosa Iriondo,
Jose Inazio Sarasua
Kazetaria
Ainhoa Lodoso
Maketatzailea
Maite Rementeria
Publizitatea
Nekane Etxaniz
Administrazioa
Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste
Kolaboratzaileak
Myriam Aldazabal, Alberto
Ansuategi, Isabel Ansola,
Joxin Arregi, Belen
Arrizabalaga, Bertso Eskola,
Agur Miren Barandiaran,
Hasier Etxeberria, Ina
Garagarza, Maite Iriondo,
KOKOE, Imanol Larrañaga,
Koldo Lizarralde, Aitor
Lodoso, Nerea Lodoso,
German Meabebasterretxea,
Jasone Osoro, Diana Perez de
Albeniz, Eduardo Sanz, Aitor
Zabaleta
Banaketa arduradunak
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia
Inprimategia
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)
Tirada: 3.000 ale
Lege gordailua: SS-1.038/92
ISSN: 1133-021X
elgoi**BARREN**ek ez du bere
gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta
iritzien erantzunkizunik.

Serbiako Pedro I.goa Yugoslabiakok Pedro I.goa bihurtu zen unean utzi nuen artikulua, eta hau munduko I. gerratearen ondorio bat izan zela adieraziz.

Munduko II gerratean, Alemaniaren helburu nagusi eta aurrenetako bat Errusia menderatzea zen. Yugoslavia, Errusiaren aldeko zenez, estatu faszistak Yugoslavia menderatu eta beraiek nahi izan zuten erara banatu zuten.

Gerraren amaieran Tito boterean jarriarik, komunismo "nazionalista" bat bultzatu zuen. Nahiz eta kanpora, Errusiaren aurkako azaldu, hauei Yugoslavia berri hau tapagune bezala oso ondo etorri zitzaien.

Egia da Titoren jokaera honi esker, Yugoslavia Stalinen diktaduratik at gelditu zela eta Yugoslavia berri honek horrelako batasun sentimental bat bizi izan zuela.

Baina gerratearen belaunaldia zahartzen joan zenean atzetik zetozen belaunaldi berriak erabat nazionalistak azaldu ziren, baina ez Yugoslavia estatuaren aldeko nazionalistak, baizik eta Pedro I.goaren aurretik zeuden lurralde eta herrialdearen aldeko abertzaleak.

Kontuan izan behar, ekonomia aldetik lurralde arteko ezberdintasunak gero eta handiagoak zirela eta horrek garai bateko borroka berpiztu zituela poliki poliki.

1970. urtean Kroaziak bere independentzia eskatu zuen ofizialki eta Titok haize berri hauek ikusirik 71.ean "purga" edo garbiketa gogor bat egin zuen abertzaleekin.

Ez da ez Titoren ondoren sortu den borroka, Titoren ondoren lehertu den borroka baizik. Eta Balkanetan kondairan zehar gertatu den bezela, Serbia eta Kroazia bere lurraldeak zabaldu nahian dabilta, horretan oraingoan ere Serbia, Errusiaren laguntza ikaragarria jasotzen ari delarik.

Guzti hau nere ustez honela izanik, gure artean, herrien artean gogor eta sakon eztabaidatu beharrekoak hauek dira: "giza eskubideen errespetua", emakumeek jasotzen duten errepresio lotsagarria, Estatuak indarrez mantentzen dituzten batasunen ondorioak, armak erabiltzeak ekartzen dituen hondamendiak, marxismoaren zientifikotasuna...

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*



Aurrera jarraitu elgoiBARREN

Elgoibartik kanpo bizi garentzat oso interesgarria izaten da herrian egiten den aldizkari hau gure etxean hartzea postaren bitartez. Era honetan lotura gehiago mantentzen dugu Elgoibarrekin, bertako albisteak eta erreportaiak irakurtzean astero astero aldizkari honetan.

Baita txalogarria da erakunde publiko eta pribatuetatik finantziarioa lortzea aldizkaria dohainik jasotzeko hainbat etxetan.

Guzti hau dela eta, animo eta aurrera jarraitu elgoiBARREN aldizkari honekin.

Felix Etxeberria.
(Erandio)



BARREN jaio zenetik zuzendaritzan egon ondoren, Itziar Agirrezkortak utzi egin du kargua. Badakigu horrelako lanak astunak direla eta ez direla luzerako. Horrexegatik, BARREneko lantaldearen partez eskerrik beroenak eta nahi duzun arte. Agur bada Itziar, baina ez adiorik.

GOGORATU!

Atal hau zuen esku-titzen zain dago. Kezka, iritzi, galdera, erreflexio... adierazteko aukera ezin hobea daukazue bertan.

Eskutitzak idazten duenaren izena, bi abizen, telefono zenbakia eta N.A.N.a izan behar du. Argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatzen badu, inisialak soilik agertuko dira.

Kritika eta gaitzespen mota guztiak onartuko badira ere, ez da tokirik izango irainduz edo errespetu faltaz idatzitako eskutitzentzat.

PESA GRUPO

BONOBUSAK eskuragai urriak 1etik aurrera

- 1.- EIBAR - ELGOIBAR - DONOSTIA (40 bidaia)19.800 pta.
- 2.- EIBAR - BILBO - EIBAR
 - 10 bidaiatako bonoa3.500pta.
 - 40 bidaiatako bonoa.....11.000 pta.

IKASLEENTZAKO ABONOAK

- 1.- EIBAR - DONOSTIA
Asteko egun guztietarako eta ordutegi librearekin
Hiru hilabetetako prezioa.....37.500 pta.

Informazio gehiago nahi baduzu (943) 11 21 31 - (94) 416 87 77



AZKUE

Aste honetako erretratua **Josefina Irustak** lagatakoa da. Erretratua 1953. urteko urriaren 15ean Plaza Handiko arkupeetan ateratakoa da.

Erretratuan azaltzen zaizkigun kuadrilakoak, gai-nontzeko herkidekin batera taberna, denda eta kale bazterrak garbitzeari laga eta belaunetatik beherakoak “freskatzera” atera ziren erretratuaren aitzakian. Freskatzen diogu, euria etengabe egin zuela nabari izanik, alkandora eta soinekoen mangamotzek garbi uzten baitute euria eta beroa lagun izan zituztela egun horretan.

Ufalak berez zoritxarra eta negarra ekarri ohi dute (Elgoibarren ezagutu ditugun azken biak lekuko) baina erretratukoak ez ziren gehiegi estutu Elgoibarko kaleetan belaunetarainoko lokatza eta ura ikusi arren. Ikus dezagun zeintzuk diren Deba ibaiko ur hazietan hankak betirako garbitu zituztenak:

Ezkerretik hasita: **Ignacio Mugerza, Concha Mugerza, Jose Mari Gabilondo, Beltza Rebenga, Manoli Mugerza eta Imanol Furundarena “Mokorroa”**. Atzekaldean ikusten den txapelduna: **Florentino Etxeberria**.

BANCO DE VASCONIA
Beti zure zerbitzura
 Errosario 33, Elgoibar. Tel. 74 05 62 - 74 05 66

Fotero
OKINDEGIA
OPILEDGIA
 San Frantzisko, 4
 Tel. 74 07 35

PUB

 elgoibar

1953ko uholdeak: 40 urte beranduago

1953. urteko urriaren 15ean Deba ibaiak gora egin eta herriko kaleak urez estalita geratu ziren. Berrogei urte bete dira 53ko uholdea izan zenetik. Harrez geroztik, elgoibartarrok gogoan ditugun beste bi uholde izan dira, 1983koa eta 1988koa, alegia. 1953. urteko uholdeen 40. urteurrena dela eta, orduko pasadizuak eta irudiak gogora ekarri nahi ditugu datozen argazki eta hitzen bidez.



OTEIZA

Urak "Atxaorbea" etxeko sukaldean bistan laga zuen. (1953)



AZKUE

Santa Klara inguruan Deba ibaia haserre. (1953)

1953. urteko urriaren 15eko goizaldean erreka aldera ematen duten etxeetakoak belduz ikaraturik zeuden ura noiz barrura sartuko. Kaleek erreka lüzapena ziruditen. Erreka aldean bizi ziren familia askok dena bere horretan utzi eta etxetik alde egin zuten babesleku bila. Urak, bitartean, hainbat kalte sortarazi zituen. 40 urtetik gorako herritar askok izango du gogoan Txankakua zubiaren aldamenean zegoen "Atxaorbea" etxeko sukaldean nola eraman zuen urak. Edota asko eta asko gogoratuko dira Maalako ospitalaren alboan zegoen zubi zaharra apurtu egin zela uholde haietan.

Arratsalde partera ura jeisten hasi omen zen. Horrelako guztietan bezala, ura jeitsi ondoren agertzen da benetako drama. Lokatzez estalitako kaleak garbitu behar, urak eragindako kalteen zenbatekoa kalkulatu behar... Dena den, 1953. urteko uholdeak baino handiagoak jasan omen ditu herriak. Eliza atariko orma batean urak lagatako markak daude eta esaten dute, behin, eliza aldareraino heldu zela ura.

Uholdeen inguruan anekdota eta istorio xelebreak sortu dira. Zenbaitzuek kontatzen dute, aspaldi batean, euria gelditzeko, San Antonen irudia elizatik atera zutela.



Plaza handia urez beteta. (1953)



San Frantzisko kalea. Jendea gazte ausartari begira. (1953)

OTEIZA

1983

1983. urteko abuztuan, San Bartolome jaietan murgilduta geunden elgoibartarrok. Txiki eguneko erresakaren ostean, abuztuaren 26ko arratsalde partera, Deba ibaiak gainezka egin zuen. Euskal Herri osoan izan ziren uholdeak eta beranduago, "zona catastrofica" izendatu zuten. Euskal Herri osoan egoe-
ra dramatikoak bizi izan zen. Fabrikak, dendak, etxebizitzak, errepideak, kaleak...; kalteak izugarriak izan ziren. Urik eta argirik gabe pasa behar izan genituen elgoibartarrok lehendabiziko egunak. Urte hartako egunkariak diotenez, Deba Beheko eskualdea izan zen bere onera etortzeko denbora gehien behar izan zuena.

AZKUE

1988

1988. urteko uztailaren 19an elgoibartarrok inoiz ezagutu izan dugun

hondamendirik handienetarikoa bizi izan genuen. 1983. urteko uholdeak baino larriagoak izan ziren 1988. urtekoak, bai kalte aldetik, bai hildako pertsonen kopuru aldetik. Uztailaren 19ko arratsaldean, euri jasa izugarria hasi zen. Gaueko 10ak aldera, hondamena etorri zitzaion herriari. Inguruko mendietan eroritako ur jasen etorria handiegia izan zen alkantarilek dena jasotzeko. Bi ordu eskasen buruan San Lorentzo eta Santa Klarako errekaen ur isuria bere ubidetik irten eta aurretik harrapatu zuen guztia eraman zuen. Kottxeak, pertsonak... Udako ekaitza zirudiena, hondamena bihurtu zen. Altzola eta Elgoibar arteko zatian, 11 kotxe topatu zituzten errekan. Guztira, bederatzi hildako izan ziren Elgoibarren.

Mendaron, kalteak 1983. urteko uholdearen antzekoak izan ziren eta ura 50 zentimetro azpitik geratu zen.



Maala, gehien sufritzen duen herriko zonaldea da. (1983)



Plaza handia hurrengo egunean. (1988)

AZKUE

Bejetariano egingo al zinake?

Ez noa elikatze mota desberdinen konparaketa edo defentsa egitera. Badira ni baino esperientzia eta ezaguera handiagoak dituzten pertsonak. Nere idatzia, beraz, ikupuntu pertsonal bat baino ez da.



Ohitura aldaketak sarritan, gehiengoaren aurka joan eta defentsarako arrazoiei heldu beharra dakar, horrela "aurkako-gehiengo"ri erantzun ahal izateko. Hau izan zen hain zuzen ere, nire lehen esperientzia bejetariano bezala.

Nire lehen motibazioa fisikoa izan zen; osasuna hobetu, bizitasun gehiago izan eta nire azalean gustora egoteko.

Gauza askori esan behar izan nion EZ. Baina elikadur-ohiturak bakarrik aldatuz gero, ohiturak errutina bihurtzen dira eta motibazioa galtzen da, aurreko etapa batera bueltatuz. Horregatik, bila jarraitu nuen eta suertea izan nuen, osasun integrala (gorputzaburua-espirtua) deritzona aurkitu nuen.

Yoga eta beste kultura desberdin (eta ez horregatik baztegarri) batzuekin izandako kontaktuak beste motibazio batzuk piztu zizkidan, niretzako garrantzitsuagoak, zeinetan jateko moduak soilik ondorio eta mundu mailako inplikazioak zekartzan.

- Bizia errespetatzeko zerbait konkretua egin nezakeen: EZ HIL. (Edo ahalik eta gutxien edo sufri-mendu txikiagorekin).

- Naturarekin bat egin nezakeen, bere parte sentitu eta ez kontsumitu, agortu eta ihauli nigatik at dagoen zerbait balitz bezala.

- Politika mundiala egin nezakeen. Planetaren hiru laurden gosez hiltzen dira eta beste laurdena gehiegi jateagatik hiltzen gara. (Animali proteina kilo bat kontsumitu ahal izateko, animali honek 20 kilo landare proteina kontsumitu ditu).

Azken batean osasuntsuago egon ninteken, Ipar-Hego injustiziagatik protesta egin nezakeen eta gainera nire kontzientziarekin gustora egon nintekeen... A zer nolako suertea, nerea!

Hamabost urteko esperientziaren ondoren, motibazioak inoiz baino balekokoagoak dira eta hauei esker gose, gerra eta heriotzezko kultur mundu, finantz, politiko... honekiko sentitzen dudana inpotentzia eta amorrua eramangarriago egiten zait.

Bejetarianoa Bai! Ahal dut, nahi dut eta izan behar dut!, nire ama eta Elena kideari esker horren janari simple bezain onak egiten dituztelako. (Eskatu iezaizkiozue errezetak).

Osasunak eta Alak konfesatuta har gaitzala.

Jesus Mugerza



Nire ustez elikadura ekilibratua izatea oso garrantzitsua da gizakien osasunarentzat.

Elikadura ekilibratua izateak, denetik jatea suposatzen du, hau da, proteina, karbohidrato, koipeak, bitaminak, eta abar...

Protidoak gure dietan sartzeko ezinbestekoa zaigu, haragia, arraina eta eta arraultzak jatea.

Barazkiek badituzte proteina mota batzuk baina ez dituzte osatzen beharrezkoak diren proteina konplexoak. Gehiegikeriak ez dira onak, noski. Haragia, arrain eta arraultza gehiegi jateak, zenbait gaixotasun sor dezake, kolesterola, gota, e.a... baina neurrian jatea osasungarria da; gizona gizon denetik, betidanik, denetik elikatu dela esango nuke, ehizan eta arrantzan eginaz. Abere gehienek ere, beraien dietan haragia dute.

Naturan, animalia batzuk belar jaleak dira, beste batzuk, berriz, haragijaleak eta gizakiak orojaleak, hau horrela da, eta ez dut uste orain bejetariano dieta osasuntsuagoa gerta daiteke-enik.

Niretzat bejetariano izateak haurrengan du arrisku handiena. Hasteko proteinak dira garrantzitsuenak eta hurrek hazi egin behar dute. Gorputzeko zelula guztien konposaketa nagusiena proteinak dira, enzima, hormonak, e.a...

Berdura eta legunbreen dietak, proteinen kopurua bete dezake baina gorputzak behar dituen proteina desberdin guztiak ez dira bertan aurkitzen.

Bestalde, haragi edo arraina jateak pertsona askori satisfazio handia eman diezaioke. Hau, Juan Echanove aktoreak nik baino hobeto azaldu zuen Mercedes Milaren telebista programan.

Amagoia Arakistain

ETA ZURE USTEZ?


Bejetariano egingo al zinake?



Josune Fernandez
20 urte, administraria
Ez nintzateke egingo. Okelia asko gustatzen jata. Nahixo dot arraina baino. Eta berduria ere ez jata gehixegi gustatzen.



Sonia Urbiola
28 urte, langabetua
Ez. Ez zait berduria gustatzen. Ondo iruditzen zait bejetariano izatea. Baina denetik piska bat jatea konpletuago dela iruditzen zait.



Jose Maria
59 urte, teknikoa
Niri goilararekin jaten dena gustatzen zait. Okela ere jaten dut. Denetarik jaten dut nik. Gainera, denetarik jan behar dela uste dut.



Martin Fernandez
37 urte, langabetua
Ez. Nik bejetalak jaten ditut batez ere, baina noizbehinka okela ere jaten dut. Horregatik ez nintzateke inoiz guztiz bejetarianoa izango.



Bixente Irusta
24 urte, delineantea
Ez dakit. Garrantzitsua bada ere bejetariano izatea ez da bakarrik berduria jatia. Bejetariano eitzen zeranian bizi filosofia bat onartzen dozula suposatzen da.



Ana Perez
32 urte, zapataria
Bai. Ez daukat inolako arazorik. Okela eta arrainaren proteinak fruitu zikuek dituzte. Ez litzaidake kostatuko arraina eta okela uztea.

Elgoibarko Haur Eskola Arregitorre 4, ☎ 74 21 41

0-3 urteko haurrentzat

■ ■ **ORDUTEGIA:** Goizeko 7,30etatik arratsaldeko 6etara

■ ■ **3 HEZITZAILE**

■ ■ **400 m² ko ESPAZIOA:**

Jangela, logela, aldagela, jolasgela eta psikomotrizitate gela

■ ■ **500 m² ko PARKE EDER** bat leku estali batekin

■ ■ **KUOTA:** 23.000 pta hilean (10 hilabete)

Haurrak zoriontsu hezi ditzaun!!



Euskara elkarteei buruzko ihardunaldiak

Arrasate Euskaldun dezagun (AED) kultur elkarteak bere 10. urteurrena ospatzeko zenbait ekitaldi antolatu ditu "AED elkarteak 10 urte, egunez egun, Arrasate euskalduntzen" lemapean. Burutuko diren ekintzen artean "Herrietako euskara elkarteei buruzko jardunaldiak" burutuko dira. Izan ere, asmoa, elkarten artean laguntza, informazioa, kezkak, ekimenak, arazoak, nahiak etb. elkar trukatea litzateke.

Jardunaldietan, nonbaiten horrelako elkarteren bat sortu nahi duenari, bideak aurkitzen lagunduko zaio eta era berean, euskara elkarten dinamika eta antolaketaz sakonduko da.

Nafarroa oinez 93

Aurten ere, urtero bezala, Elgoibarko Izarra Elkarteak, Elgoibarko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzarekin, autobusak antolatu ditu Nafarroa Oinez 93ra joateko. Aurten urriaren 24an izango da Altsasun. Izena emateko jo Elgoibarko Izarrak Ubitarten duen lokale-ra. Izena emateko azken eguna urriaren 22a izango da. Prezioa 800 pezetakoa izango da.

Kokoteraino taldearen maketa asteburu honetarako kalean



Kokoteraino taldeak, lehen *Nahitanahiez*, lehendabiziko maketa grabatu du. Maketak astebukaera honetarako Elgoibarko tabernetan salgai egotea espero dute eta taldearen izen berdina daraman grabazio hau 500 pezetatan salduko da. Orain arteko gastuak taldea osatzen duten lau kideren artean ordaindu dituzte "irabaziak hiruen artean banatzeko" diote umorez.

Grabazioa irailaren 24an eta 25ean burutu zuten Billabonako IZ estudioetan. Guztira sei abesti grabatu dituzte.

Kokoteraino taldea duela urtebete sortu zuten Oier Gurrutxagak, Patxi Zabaletak, Iker Rodriguezek eta Gorka Rejilek. Lehenago *Nahitanahiez* izena zeukan taldeak baina arazo batzuk medio izena aldatu behar izan zuten. Taldea sortu zenetik, lehen helburua lortu dutela esan digute; izan ere, lehendabiziko asmoa maketa grabatzea zen. Hemendik aurrera ahalik eta kontzertu gehien ematen saiatuko dira eta hurrengo pausua ekipo hobeto bat erostea izango dela esan digute.

BERISTAIN EDARI BANATZAILEA

- Coca Cola
- Keler zerbeza
- Altzolako Ura
- RAM esnea
- Codorniu
- Ardoak eta edariak

lñaki 74 38 27



**MITZ
BIZKAR**

Taberna


Errosario, 20.



MAPFRE
ASEGURUAK
Mari Luz Rojo

Mota guztietako aseguruak zure esku

San Frantzisko, 34 Telf: 74 05 82 - 74 14 04



JOSE ANGEL ZABALA
URDAITEGIA

Berezitasunak:

Bakilaua

Txerrikiak

Merkatu Plaza 33-34



AITOR ZABALA

Bandaren Kontzertua

Datorren igandean, hilak 17, Udal Musika Bandak kontzertu bat emango du Foruen Plazan eguerdiko 12,30etan. Lehenago, goizeko 11etan, herriko kaleak zeharkatuko ditu kalejiran. Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean bost pieza joko dituzte.

Udal Musika Bandak eskainiko duen hurrengo kontzertua azaroaren 21ekoa izango da, Santa Zezilia egunekoa, alegia.

Azoka Plazako bost saltoki enkantean

Hilaren 26an, eguerdiko 12etan, azoka plazako 5 saltoki (hiru beheko solairuan eta bi lehenengotan) enkante bidez emango dira Udaletxean. Parte hartu nahi dutenek Udaletxeko idazkaritzan enkantea arautuko duten baldintzak jaso ahal izango dituzte.

Errosaixo kaleko jai egitarauaren barruan Fernando Uriarte "Olinpik" eta Reyes Azkoitia pelotari ezagunak pilota partidu interesgarria jokatu zuten pasa den zapatuan, hilak 9, Plazako frontoian. Partidua Olinpik-ek irabazi zion Reyes Azkoitiari 22-18ko emaitzagatik. Hala ere, zail xamar jarri zizkion gauzak Elosuko pelotariak elgoibartarrari eta kostata lortu zuen 22 tantutara heltzea. Dena den, Reyes Azkoitiak 42 urterekin eta Fernando Uriartek 59 urterekin, sasoi ezin hobean daudela erakutsi zuten, partidu bikaina burutu baitzuten.

DEITU EZAZU HOTZA HELDU AURRETIK


LEIHOETAKO

ZIRRIKITUETATIK:

- hotza
- haizea
- hautsa
- zarata
- polena

SARTZEN BAZAIZU...

EZ DITUZU LEIHOAK ALDATU BEHAR



ALTZAIRU
INOXIDABLEZKO
BURLETEAK

Altzairu inoxidablezko burleteak betirako dituzue.

- ▲ Edozein ate edo leihotarako
- ▲ Leihoak aldatzea baino 10 aldiz merkeago
- ▲ Berogailu gastuetan %30 gutxiago
- ▲ Leihoak ere konpontzen ditugu

**OBRARIK GABEKO
INSTALAZIO AZKARRA**

glas control

Ubitarte 7. ELGOIBAR

ESKATU AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

☎ 74 30 94 - 74 43 54

"Ez dugu inongo sukaldaritzaren inbidixarik euki bihar"

Nork ez daki zein den Argiñano? eta nork ez daki Argiñanoren jatetxea Zarautzen dagoela? Dudarik gabe bera dugu egungo sukaldaririk famatuena telebistari esker.

Horrela, fama pertsonalak bere jatetxearen fama ere areagotu egin du. Eta handik bueltatxo bat emanaz gero, ez da arraroa izango oso urrititik etorri

den jendea ikustea, bidaiak luzea egin dutenak Argiñano ezagutzeko eta bazkari eder horietako bat dastatzeko. Ez dakitena, ordea, hain gustora jango duten janari hori elgoibartar batek eginga izan daitekeela da. Izan ere, 24 urte dituen Alberto Etxabe "Karlos Argiñano" jatetxeko sukaldaria dugu.

- Nola sartu zinen sukaldaritzaren munduan? Txikitatik atsegin al zenuen?

- Bai. Neri beti gustatu izan zait sukaldaritzak baina hamasei edo hamazazpi urterekin ogibide gisa hartu nuen.

- Ze bide jarraitu duzu "Argiñano"ra heldu arte?

- Hori, hamasei urterekin Orion hasi nintzen lanean. Gero eskolan sartu nintzen eta han hiru urte egin nituen. Gero hemen zehar ibili naiz, duela urtebete "Argiñano"n sartu nintzen arte.

- Kamaraz kanpoko Argiñano, kamara aurrekoa bezain alai eta atsegina al da?

- Bai. Berari asko gustatzen jako sukaldaritzak eta bera sukaldean gauden guztiori bere izaera transmititzen saiatzen da, sukaldea ondo eramateko eta danok gustora egon gaitezen.

- Nola azalduko zenuke sukaldaritzak azken urteetan izan duen "boom" a?

- Orain hamar bat urte



"Emakumeak orainarte sukaldaritzan gehiago aritu dira obligazioz ofizioz baino, gizonezkoak alderantziz."

hasi zian Arzak eta beste batzuk euskal sukaldaritzak modernoak ezagutzen dugunarekin eta azken urteotan Argiñanok telebistarekin arrakasta handia eman dio sukaldeari, bai Espainian eta baita beste nazio batzuetan ere.

- Arzak, Subijana, Argiñano... Zergatik dira gizonezkoak sukaldaririk famatuena?

- Izan dira emakumez-

ko sukaldari famatuak baina gizonezkoak beti izan dira gehiago. Nik uste emakumeak orain arte sukaldaritzan obligazioz aritu direlako dela. Gizonezkoak, aldiz, gustatzen zaielako edo afizioz aritu izan direlako. Hemen Euskal Herrian adibide asko dauzkagu soziedadietan dauden hainbat eta hainbat sukaldaritan.

- Ze motatako jendea da zuen ohizko bezeroa?

- Danetarikua. Enpresariak, kanpotik Euskal Herrira etortzen diren biajantiak...

- Ze sukaldaritzak moeta egiten duzue?

- Tradizioa euskal sukaldaritzarekin bateratua, baina batez ere sukaldaritzak tradizionala.

- Ze helburu dituzu etorkizunerako?

- Nere intenzioa nere jatetxe propioa zabaltzea izango litzateke, baina orain nahiko zaila dago hosteleritzak munduan hastea edo sartzea eta, bueno, ikusiko dogu.

- Zer iritzi duzu, adibidez, sukaldaritzak exotikoetaz?

- Mundu guztian dago sukaldaritzak ona: Italian, Japonen,... Guk ez daukagu inoren inbidixia euki biharrikan baina danak dira onak eta probatzeak.

- Perejila barra barra, ezta?

- Bai, bai. Beti. (Barrezka).

Edu Sanz

Txema Aizpurua

Okina

- Ogia besapean zenuela etorri al zinen mundura? -Ez.
- Panadero ofizioz ala bokazioz? -Ofizioz.
- Zenbat urte lanbide honetan? -Ogia egiten bost urte, ogia saltzen, berriz, hamairu.
- Lanak uzten al ditu parrandarik egiten? -Oso gutxi. Ez, ezin da, gabeen lanera joan behar da eta.
- Errejimena egin nahi izanez gero ba al dago ogia eta pastelak jaterik? -Errejimena ondo egin nahi bada, ez. Pastelak ez, desde luego; ogia bai, baina oso gutxi.
- Ogi txinoa gustatzen al zaizu? -Bai, behin jan gendun. Baina ez nuke egingo, guk gurearekin nahikoa daukagu.
- Bokadiloa, zerena? -Saltxitxoiarena.
- Hortik zehar ibiltzeko gaua ala eguna? -Gaua.
- Ba al duzu inori esango ez zeniokeen sekreturik? -Ez.
- Nolakoa da zure emakume ideala? -Nere ideala emakume txikia eta mehea zan, eta emakume handi batekin ezkondu naiz.
- Lo pijaman ala kantzontzilotan? -Pijamarik gabe.
- Zure furgonetari gaizki aparkatzeagatik isuna jarritz gero ordainduko al zenuke? -Bai, ordainduko nituzke denak.
- Turnoa egitea tokatzen zaizunean asko izorratzen al zaizu asteburua? -Ez. Tokatzen denean egin eta listo.
- Zinturoia ala tiranteak? -Ez bata, ez bestea. Zeozer jartzekotan zinturoia jarriko nuke.
- Norengatik joango zinateke munduaren azkenera? -Familiagatik.
- Musika klasikoa ala rokanrola? -Neri Beatlesak, 60. hamarkada hasierako musika gustatzen zait, "blues" edo deitzen diotena.
- Non zeuden zu 68an? -Zarautzen nengoen futboleko jokatzeko. Orduan ez neukan beste gauzarik buruan.
- Idatzi al duzu inoiz poesiarik? Nori? -Ez, ez dut inoiz idatzi.
- Esan al duzu gezurrik elkarrizketa honetan? -Ez.

Nerea Lodoso



BERTSOTAN

Bejetarianoa, bai ala ez?

Doinua: X. Leteren "Habanera"

Ez al da Jaunak lujoa aukera hau izatea, aukerarik ez denean izaten baita tristea. Bi dieta hoiere artean horra hor nere ustea: tamainan ez jate berak dakar berakin kaltea. Haragi, arrai ta arraultze pare bat aldiz astean, barazki, fruta ta pasta beste bostetan jatea, horrela lor genezake osasun osoz haztea, ez bata edo bestea baizik bien nahastea.

Izaskun Elizburu

**BOUTIQUE
DEL PAN**
B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92

BATZOKIA
Jatetxea-Taberna
P. Muguruza 8. Tel: 74 08 21

KAFETEGIA
Kafetegia

Igandean, hilak 17, hasiko da futbito txapelketa

Iaz baino talde gutxiagorekin, hasiko da azkenean Urasandiko futbito txapelketa. Lehendabiziko partidua astebukaera honetan hilak 17, jokatu dira Urasandiko futbito kanpoan. Aurten talde gutxiago dagoenez ez da partidurik egongo goizeko 9etan. Igandean, beraz, goizeko 10etan, 11etan eta 12etan jokatuko dira partidua.

-10etan:

Mimox-Resto del Mundo
Chelsea-Pedrusko

-11etan:

Oraiko Cafe-Lanbroa
Karkis-Berrogei duro

-12etan:

Arroak-Hunde Verboten
Kosakos-Xirula

Partiduen arbitraia Txirristaka taldekoek egingo dute.

III San Pedro Txirrundulari igoera

Igandean, hilak 17, goizeko 12etan III. San Pedro Txirrundulari igoera izango da zikloturista mailako txirrundularientzat. Hori dela eta, Elgoibartik San Pedrorako bidea itxita egongo da kotxeentzat 12ak eta 12,30ak bitartean.

Bestalde Elgoibarko "Lagun Taldeak" txirrundulari elkarteek neguko denboraldirako entrenamenduei hasera emango die igandean, hilak 17, goizeko 9,30etan. Lagun Taldeak txirrundulari izan nahi duten herriko mutiko guztiak Plaza Handian biltzera animatu nahi ditu.



Maider Elustondo

Rugbyan dabilen neska elgoibartar bakarra

-Nolatan hasi zinen rugbyan?

- Mutilen ekipoan lagunak nitxun eta beti esaten zieten apuntatzeko. Nesken ekipoa atera zabenian deitxu egin zieten juteko lehenengo entrenamendura.

-Zein ekipotari zabilte?

-Eibar Rugby taldean. Mutilen talde orain dala 15 urte sortu zan eta neskena aurten. Aurten entrenatzen hasi gera eta amistoso batzuk jokatuko ditxugu.

-Zer entrenamendu egiten duzue? -mutilekin batera entrenatzen dogu normalian; korrika eta horrela egiten dugu. Nahiko gogorra da.

-Noiz hasi behar zarete ligan?

-Nesken ligan ezin dogu jokatu oraindik hasi bakarrik egin dogulako. Datorren urtian uste dot hasiko gerala. Nesken ligan 8 ekipo daoz.

-Zenbat elgoibartar zaudete ekipoan? -Neskak, ni bakarrik.

-Ezagutzen al duzu rugbyan jokatu nahi duen besterik?

- Keba. Ibili naiz jendiari galdeetzen eta mutilak ere ibili dia, baina keba, jendia ez da animatzen. Zoratuta nauala esaten diate, danetik entzun dot.

-Egia al da rugby jokalaria handia eta sendoa izan behar duela? -Ez. Hamabost pertsonak



jokatzen dabez rugby ekipo batian eta hoiaren artetik danetik dao. Bueno, esaten dabe zazpi izan bihar diala fuertiak eta bestiak danetik.

-Zein ezaugarri lantzen dira rugbyan? -Indarra batez ere baina belozidadia ere bai. Baina hamabost hoietatik ez dabe danak belozidadia bihar, indarra bai.

-Modan al dago rugbya? -Ez dakit. Elgoibarren lau mutil daude rugbyan jokatzen eta telebistarekin jende gehiagok ikusten du.

-Ipar Ameriketara bezala, kirol nazionala izatera iritsiko al da? -Keba! Igual noizbait, baina keba.

• Adina: 17.

• Postu aproposena?

"Pilier" izan daiteke.

• Lesiorik? Ez.

• Izateko beldurrik? Ez.

• Beste kirolik? Ez.

• Hobbyak? Musika entzun eta lagunekin urten.

IDARRAGA
KAFEAK

Eguneroko errealdia

San Frantzisko 17. Tel. 74 05 33-36 39

Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behea. Tel. 74 28 74 - 74 05 70

Iraegui

ERROTULAZIOA

☎ 74 39 52

San Antolin 74 37 06

500 ikasle arituko dira eskolarteko jokuetan

Joku eskolarrak martxan daude berriro. Larunbat honetan, hilak 16, jokatuko dira lehendabiziko partiduak. Antolakuntzan Mendaroko eta Elgoibarko OHOk ikastetxeetako kirol arduradunek, Udaleko Kirol Zerbitzuak, herriko kirol klubek eta zenbait gurasok hartzen dute parte.



➔ Xakea egin daitezkeen banakako zazpi kiroletako bat da.

Hiru kategoria ezberdin arituko dira eskolarteko jokuetan: benjaminak (3. eta 4. mailakoak), alebinak (5. eta 6. mailakoak) eta infantilak (7. eta 8. mailakoak). Iaz bezala, hiru kirol kolektibo eta banakako zazpi burutu ahal izango dituzte OHOk ikasleek: batetik, kirol kolektiboen artean saskibaloia, futbola eta eskubaloia eta banakako kirolen artean tenisa,

mendizaletasuna, igeriketa, txirrindularitza, xakea, atletismoa eta esku pilota. Benjaminen kategoriako taldeek hiru kirol kolektiboetan aritu beharko dute derrigor. Izan ere, arau honen helburua gaztetxo-en artean polikiroltasuna bultzatzea eta kirol bakar batean ez espezializatzea da. Alebinek, berriz, bi kirol aukera ditzakete kolektiboen artetik eta, infantilak, nahi adina

kirol ihardueratan ibil daitezke. Banakako kirolen hautaketa librea da adin guztietako haurrentzat.

Aurten OHOk 3. eta 8. mailako haurren %90a gutxienez, arituko da kirolen batean eta guztira 500 inguru haur izango direla kalkulatu da. Partiduak larunbat goizero jokatuko dira Kiroldegian, hiru ikastetxeetako kirol instalakuntzetan, IMHan eta Udal Tenis pistan.

Astebukaera bakoitzeko 20-25 partidu jokatuko dira.

Eskolarteko jokuak garai honetan hasi eta maiatza alderako herriko fasea bukatu eta zonaldeko eta probintzia mailako txapelketa jokatzen hasten dira. Iazko ikasturtean Gipuzkoako txapeldun bat baino gehiago izan genuen Elgoibarren eta ziur aurten ere hala izango dela.

EGUTEGIA

**Urriaren 16etik
Azaroaren 20ra**

Futbol Sala: Benjamin mailako neskak eta mutilak

Saskibaloia: Alebin mailako neskak eta mutilak

Eskubaloia: Infantil mailako neskak eta mutilak

TALDE KOPURUA

Futbol Sala: 53 talde

Saskibaloia: 47 talde

Eskubaloia: 48 talde

Kide
ILEAPAINDEGIA
ZUZENBIDE BERRIA
San Frantzisko 19, 1 ezkr. ☎ 74 00 69

KANDALO
OIHALA
eta
MERZERIA
Errosario 8. Tel:74 35 95

TIRO RIRO

San Frantzisko, 54. 74 13 86



Udal Musika eta Dantza Fundazioa

Udal Musika eta Dantza Fundazioa 1990. urteko abenduan sortu zen. Fundazioa, herriko hainbat talde eta elkarteren bilgune den erakunde munizipala da. Bere baitan musika eta dantzaren inguruan mugitzen diren herriko taldeak daude.

Udal Musika eta Dantza Fundazioaren eginkizunetariko bat herriko talde ezberdinen arteko lana aurkeztea eta koordinatzea da. Izan ere, aktuazio egitaraua arrazionalizatzea lortu da. Horrela, Trinitate jaietan, Santa Zezilia egunean (musikoen patroia) eta Gabonetan egitarau ezberdinak burutzen dira. Dena den, Fundazioaren baitan egon arren, talde bakoitzak autonomia osoa dauka barneko funtzionamenduari dagokionean.

Udal Musika eta Dantza Fundazioaren beste funtzioetariko bat, Musika Kontserbatorioari, LOGSE dela eta, nolabaiteko irtenbidea ematea litzateke. Fundazioaren baitan egonda, Inazio Bereziartua Kontserbatorioak finkotasuna lortu zuen eta gaur egun Kontserbatorioaz gain Musika Eskola ere bada.

Pasa den urtean 120 egunetan burutu ziren ekintzak Fundazioaren izenean. Autengo urteko plangintzari dagokionean, 15 kontzertu eta beste-lako 80 saio ezberdin burutu dira. Herriko taldeen aktuazioez gain,



➔ Pasa den urtean 15 kontzertu antolatu zituen fundazioak.

kanpoko talde ugari herriratu zituen Fundazioak: Eskoriatzako Gorosarri Abesbatza, "Traspasos" Dantza Taldea, Lasarteko Alboka Abesbatza, Eibarko Udal Musika Banda, Arkadiusz laukotea, Fanz Danzi Boskotea, Dinamarkako Sjaellands Soinu Orkesta eta Allerod Musikeskolako Orkesta, Ikerfolk-en bidez Juan Antonio Urbeltzen hitzaldia, Gipuzkoako Dantzen ikastaroa eta Nazioarteko VII. Folklore Jaialdia.

Urtean zehar burututako ekintza hauek harrera nahiko kaxkarra izan dute herrian. Herriko taldeek jarduten dutenean nahiko ikusle gutxi joaten da aktuazioetara eta kanpoko taldeak direnean, are gutxiago. Gainera, azpiegitura aldetik, Elgoibarren ez dago talde handiak edota muntaia handiak eskatzen dituzten taldeak ekarterik. Muntaia handiak egin

izan direnean Kiroldegia edo Parrokia erabili behar izan dira eskenatoki gisa.

Urte bukaerako egitarauari begira, Herriko Antzokia itxita dagoenez, kitarra kontzertua emango da Udaleko Biltzar aretoan eta, Santa Zezilia inguruan (azaroaren 22a inguruan) eta Gabonetan, aktuazio gehiago izango dira.

FITXA TEKNIKOA

SORRERA URTEA: 1990

PARTAIDEAK: I. B. Musikeskola, Udal Musika Banda, Herriko Dultzaineroak, Itxaropena Abesbatza, Parrokiko Abesbatza, Haritz Dantzari Taldea, Trikitrilari Eskola, Udal Txistulari Taldea.

ARDURADUNA: J.I. Sarasua

UDA BERRI
ELGOIBAR

BETI ARGİ, S. L.
Erregalu artikulua
Instalazio orokorrak
Sukaldeko tresneria.
ERROSARIO 6 behea. Tel: 74 16 44.

magu's
ILEAPAINDEGIA
EDERGINTZA
San Roke 6 behea tel. 74 34 91

Mikel Legorburu bosgarren, Zaldibiko auresku txapelketan

Joan den igandean, hilak 10, Zaldibin ospatu zen "Juan Inazio Iztueta" lehen auresku txapelketan, Haritz Dantzari Taldeko kide den Mikel Legorburu elgoibartarrak bosgarren postua lortu zuen. Txapela Euskadiko txapeldun den Ramon Sanchez irundarrentzat izan zen. Txapelketan, Euskal Herri osoko auresku dantzariak bildu ziren, hala nola, Azkoitikoak, Bergarakoak, Donostiakoak, Irungoak, Beasainoak eta Errenderikoak.

Euskal Herritik Parisera

Haritz Dantzari Taldea, "Ala-

kiketan" euskal dantzen ikuskituneko partaide da eta beraz, datorren igandean, hilak 17, Basaurin izango dira bertako antzoki berriaren aurkezpenean "Alakiketan" ikuskizunaren kide gisa. Euskal Herrian ezezik, kanpoan ere taularatu dute ikuskizun hau. Izan ere, datorren urteko otsailaren 19an, Pariseko Campos Eliseos antzokian aurkeztuko dute ikuskizuna eta, Haritz Dantzari taldea bertan izango da Donostiako *Argia*, *Goizaldi*, *Arkaitz* eta Lapurdiko *Lapurta-rrak* taldeekin batera.



AZKUE



Kultur Etxeko erakustaretoan Lurki eta Egur arte lantegiak antolatutako erakusketa zabalik egongo da hilaren 24ra arte. Erakusgai dauden objektuak hurrek egindako zeramikazko ontziak, oleoak, akuarelak, marrazkiak eta esmalteak dira. Kuadroak eta zeramikak joan den urteko ikasturtean zehar egindakoak dira. Erakusketaren ordutegia iluntzeko 7etatik 9etara bitartean izango da eta, jaiegunetan, eguerdiko 12etatik 2etara.

ALTZARIAK-DEKORAZIOA

Triundo

Etxean gustura egon zaitezten

Santa Ana, 4 eta 6
Tel: 74 12 34
ELGOIBAR

16 Larunbata

11,00-13,00 SOZIOLINGUIS-
TIKA IKASTAROA

1. saioa

Tokia: Kultur Etxea

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

12,00 FUTBOLA

Eibar-Zarautz (1. maila Juvenilak)

Tokia: Mintxeta

16,00-20,00 TELERADIESTE-
SIA IKASTAROA

Tokia: Kultur Etxea

16,30 FUTBOLA

C.D. Elgoibar- Beasain (Juvenilak)

Tokia: Mintxeta

17 Igandea

10,00 FUTBOLA

Urki-Soraluze (Juvenilak)

Tokia: Mintxeta

12,00 FUTBOLA

Eibartarra-Iurreta (Neskak)

Tokia: Mintxeta

12,00 TXIRRINDULARITZA

III San Pedro Txirrindulari igoera

Antolatzailea: Langun Taldea

16,30 FUTBOLA

C.D. Elgoibar Haundi- Tolosa

Tokia: Mintxeta

11,00 BANDAREN KALEJIRA

12,30 BANDAREN KONTZERTUA

Tokia: Plaza Handia

Egitaraua:

1- Italia (Martxa sinfonikoa)

S.Rydberg

2- Ivanhoe (Obertura) G. Boedijn

3- Airiños Aires (Rapsodia galega)

G. Freire

4- Cabaret (Selekzioa) J. Kander

5- Dauder (Pasodoblea) S. Lope

21 Osteguna

19,00-21,00 SOZIOLINGUISTI-
KA IKASTAROA

2. saioa

Tokia: Kultur Etxea

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

22 Ostirala

16,00-18,00 GARAPEN PERTSO-
NALERAKO IKASTAROA

Tokia: Kultur Etxea

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

CRISTOBAL, GOMEZ, OTALORA ETA RUIZ DK.ak

Honako aseguru etxeekin lan egiten dugu: Igualatorio Medico Quirurgico, Asisa, Capisa, Previa, Lagun Aro, Diputación Mediciatc eta partikularrak.

- ▶ Azterketa ginekologikoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- ▶ Haurdunaldiaren kontrola
- Txekeoak
- ▶ Bularretako gaitzen unitatea
- Mamografiak
- ▶ Antzutasuna
- Antisorkuntza
- ▶ Menopausiaren tratamendua

*Guizti hau
Eibarren bertan
urrutirago joan
gabe!!*

Urkizu Pasealekua, 11
(Orbeako dorrea lehenengo solairua)
☎ 12 10 21 - 12 02 00 EIBAR

Etxebizitzak

Bi gela eskeintzen ditut. Lo eta erropak garbitu
Tel. 74 09 44

Mutil formala gela bila dabil. Lo egin eta arropa garbitu. Zentrikoa. Tratu familiarra.
Informazioa, Jauregi Inprentan. Felipe.

Etxe bat salduko nuke. 100 m2 eta gela guztiak kanpora ematen dute. Urasandin.
74 42 65 Amaia

Lana

Frantzeseko klaseak ematen ditut maila guztietan, Frantzea naiz eta titulua dut. Emakumeekin mintzamen lantzeko talde bat sortu nahi nuke arratsaldeko 3etatik - Setara bitartean. **74 04 59**

Fisika eta matematikako klase partikularrak ematen ditut. Euskeraz eta erderaz.
74 23 01 Jokin

Etxe lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. **74 05 34**

Marrazketa Teknikoan arazok baldin badituzu klase partikularrak emateko prest nago. EFP eta BTiko ikasleei
Deitu 12:30etatik 2:30etara 74 04 69 zenbakira

O.H.O.ko klase partikularrak emateko prest nago. Euskeraz badakit.
Ainhoa 74 36 39 / 74 05 33

Ingeniero industrialak matematika, fisika eta kimikako klaseak ematen ditu BUP, COU eta FP. Gaztelaniaz.
74 13 11 Javier

Haur bat zaintzeko prest nago. Begirale bezala esperientzia.
Lorea 74 28 53

Salerosketak

Bigarren eskuko kotxe bat erosiko nuke. Citroen C 15 furgoneta edo antzeko zerbait. Diesela.
Deitu: 74 36 34

"Levi's 501" ajatuak salgai. 31-34 neurrikoak, estrenatu gabe, berri-berriak.. 5000 pta
Deitu: 74 25 36

Bitrina bat saltzen dut, perfil eta urre brillodun ertzarekin. Neurriak: 190 x 110 x 40
Deitu: 74 28 32

Kawasaki GPZ 500 S SS-AJ 10.000 km.
Tel. 74 28 32

San Roke bailaran terreno batzuk salgai ditugu.
74 39 89 Rufina

Bi bizikleta BH tolesgarriak saltzen ditut. 16.000 pta biak.
74 04 59

Garaje itxi bat saltzen dut. Santa Ana 46an. 14 m2.
Tel. 74 28 32

Motxila bat salgai. Neurri ertaina, poltsikoekin alboetan eta handitzeko posibilitatearekin. Prezio interesgarria.
74 26 09 Roberto

SEAT MARBELLA SS AL salgai. 30.000 km.
Deitu 78 70 30

Musika ekipo bat saltzen dut. Irratia, ekualizadorea, platina bat eta tokadiskoa. 25.000 pta.
Deitu 74 03 55 Iñigo

Pastor aleman arrazako txakur kumeak saltzen ditut. Pedegree . Jatorri ezinhobekoak.
74 41 32 Fernando

Kontaktuak

Donostian pisua konpartitzeko neskak behar dira.
Deitu 74 08 72

SEIKO markako erloju bat galdu dut King-kongetik Lojantzira bitartean hilaren 23an
Mesedez deitu, 74 12 23

UNIFORM

JUARISTI Aroztegia


Egur-aluminiozko **UNIFORM** leihoak, egurrezko leihoen edertasun eta aluminiozkoen teknika batzen ditu.

- ➔ Ez dauka mantenu beharrik
- ➔ Haizea eta urarentzat isolatua
- ➔ Kolore efektu ikusgarriak
- ➔ Betirako leihoak

Arotz, kontratista eta etxe berrikuntzetarako mundiala.

BULEGOA:
Ubitartre, 2 behea. Tel.: 74 13 33

LANTEGIA:
Santa Ana, 16. Tel.: 74 29 94






Eibarmoto



**Motorren
salmenta eta
konponketa**

Matxaria, 2
TEL-FAX: (943)11 33 32
20 600 EIBAR



NaturGas

Naturgas, gure energiaren zatia da. Gure etxeetan bete betean sartzen ari den energia.

Naturgasek euskal etxe eta komertzioak gasez hornitzen ditu. Energia garbia, segurua, ugaria eta merkea. Europan frogatu den bezala bizi kalitatea eta erosotasuna eskaintzen du.

32 herritako gas banatzailea, 33.000 bezerotik gora dituelarik.

Naturgas Euskal Energia Erakundearen baitan dago. Guztion energia da.